


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**GALTZADA NAGUSIA 10**

Ignacio Mendizabal, 1934

Deskribapena

8 eta 10 zk.ko atariei dagozkien eraikinak simetrikoki errepikatzen dira. Horiek ere etxadi burua osatzen dute Colón pasealekuaren eta Zabaleta kalearen arteko ilaran, eta bolumenaren lerrokatutatik ateratzen diren beheko solairuen profil berari segitzen diote, estalki lau eta guzti. Beheko solairua, solairuartea, goiko bost solairu eta atiko atzeraemana dauzkate halaber. Eta, era berean, begiratokiak konposizioaren errematea dira kantoietan eta muturretan; alde bakarra zera dugu, kasu honetan kantoiek erremate bertikal bat daukatela, begiratokiekiko atzeratua. Erdiko horma-ataletan bao askotarikoak daude, balkoi batzuen konbinazioarekin jokatu, 7 zk.ko fatxadan, parekoan alegia, ikusten dugun bao sail errepikatua eduki beharrean. Gainazalak emokatuak dira, eta plaketa zeramiko estaliak, erliebe sinplifikazioz eta lautasan moderno batez.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Beheko solairuko estaldurak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.